

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Udalaren egoitzaren etxeko kanpoko arotzeria aldatzeko obrak kontratatzea

Onarturik Alkatearen 2016ko abuztuaren 5eko 372/2016 ebazpenaren bidez Iruña Okako Udalaren egoitzaren etxeko 1. eta 2. solairuetan kanpoko arotzeria aldatzeko obrak kontratatzeko klausula ekonomiko-administratibo eta teknikoen plegua (Langraiz Okan dago eraikina), bai eta kontratua esleitzeko prozedura irekiaren deialdia ere, eta bat etorritik Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 126. artikulua xedatutakoarekin (30/2007 Legea, urriaren 30ekoa), argitara ematen da honako iragarki hau:

Erakunde esleitzaileria.

- a) Erakundea: Iruña Okako Udala
- b) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: kontratazioa
- c) Espedientearen zenbakia: OB 1/16

2. Kontratuaren objektua.

- a) Objektuaren azalpena: kanpo arotzeria aldatzea
- b) Kontratua gauzatzeko lekua: Udalaren egoitza
- c) Gauzatzeko epea: hiru aste

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

- a) Izapidetzea: premiazkoa.
- b) Prozedura: irekia, ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza, eta hainbat esleipen irizpide.

4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: 25.326,28 euro, eta BEZaren 5.318,52 euro.

5. Bermeak

- a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen
- b) Behin betiko bermea: esleipen zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

6. Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea:

- a) Erakundea: Iruña Okako Udala
- b) Helbidea: J. A. Agirre lehendakariaren parkea, 1
- c) Herria: 01230 Langraiz Oka
- d) Telefonoa: 945371064
- e) Telefaxa: 945371318

7. Kontratistaren berariazko betekizunak: ikus administrazio klausulen agiriaren 6. klausulan ekonomia arloko kaudimenari eta gaitasun tekniko eta profesionalari dagokiona.

8. Eskaintzak balioesteko irizpideak:

Eskaintzak balioesteko eta ekonomia eskaintzarik onena zein den zehazteko, hainbat esleipen irizpide hartuko dira kontuan. Ikus baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren 9. klausula.

9. Parte hartzeko eskaintzak aurkeztea.

a) Tokia: eskaintzak Iruña Okako Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira, Langraiz Oka herrian, edo 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan adierazten dituen erakunde edo tokietako edozeinetan.

b) Epealdia: 15 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata, igandea edo jaieguna balitz, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko litzateke.

c) Ordutegia: 9:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

10. Eskaintzak irekitzea.

a) Erakundea: Iruña Okako Udala

b) Helbidea: Agirre lehendakariaren parkea, 1.

c) Herria: Langraiz Oka

d) Eguna eta ordua: lizitatzailerei behar bezala jakinaraziko zaie.

11. Iragarkien gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

12. Kontratatzailerearen profila: www.irunadeoca.eu

Langraiz Oka, 2016ko abuztuaren 17a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA